



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena
Izaskun Altxu Ariztegi
Mikel Gereka Zelaia

2019ko apirilaren 3an, 14:00ak direnean, ez-ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1.- Tokiko maparen erreforma: Idazkariaren beharra.

Azalduta apirilak 1ean Toki Administrazioetik jakinarazi zen 29/19 espedienteak, Udalbatza gaiaren inguruan solastu da. Alkateak egoeraren berri eman eta etorkizunera begira aurreikusi daitezkeen ondorio eta eraginekin daukan kezka plazaratu du. Horren harira, Udalbatzak hurrengo idazkia egitea proposatu du, Toki Administrazioako Sailera bidaltzeko eta tokiko maparen erreformak Iturenen bezalako herri txiki batean sortzen dituen kezkak helarazteko asmoz:

“Iturengo Udaleko Udalbatza.

2019ko apirilaren 3an bildurik tokiko maparen erreformak ekar ditzakeen aldaketen inguruan mintzatu nahiko genuke. Izan ere azkenaldian, eta ofiziala ez den jakinbidetik gainera, Idazkari postuaren aldaketen berri izan dugu. Aldaketa eskualdearen eraketaren eskutik dator. Horrelako postua, eskualdeak bere gain hartuko baitu, eta gaur egun gure herrian, Udaletxeak hala bermaturik, zerbitzu hori egunero ematen da (idazkaria daukagu Udal bulegoan lanean suerta daitezkeen arazo, kezka edo galderak erantzuten).

Udalbatzaren kezka garrantzitsuenetariko bat, herritarrek zerbitzu honetaz disfrutatu ahal izatea da, gure xedea beti izan baita gero eta zerbitzu gehiago herrian bertan ematea (Mediku kontsulta, eskola, eguneroko Udal bulegoaren irekiera etab). Deszentralizazioa. Zerbitzu guztiak erdigune batean ez pilatzea. Herritarrengandik gero eta gertuago egotea. Izan ere, eta gero eta latzagoa eta kezkagarriagoa den zonalde honen bizilagunen zaharkitzea dela eta, zerbitzua ahalik eta gertuen mantentzean dago zerbitzu on bat ematearen gakoa.

Horretarako, Udalbatza honek beti izan du argi zer lehentasun dituen. Beste kontuetan inbertitu zitekeen diru hori (mendi lanak, pistak zolatzea, Udal eraikinak eraberritzea...) idazkariaren zerbitzu hori mantentzera bideratu dugulako eta ongi bideratu ere. Oraintxe bertan, gure kasa ordaintzen dugun idazkariarekin aski dugu, eta guk propio ordaindu ezin genuenez beste herri batekin gastuak partekatu ditugu (Ituren). Idazkari bat bi herrientzako. Idazkari bat egunero Udalean lau orduz.

Gainera etortzen zaizkigun aldaketa hauek beldur ematen digute, ez ote dugun zerbitzuen murrizketa pairatuko. Horregatik konprometzu irmoz hurrengo eskatzen diogu zuen sailari:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Lehenik eta behin, 4/2019 Foru Legearen lehenengo artikuluan, 6/1990 Foru Legearen 361. artikuluan egiten duen aldaketaren ondorioz ematen den salbuespenean gure herria sartzea. Hau da, nahiz eta Idazkari postua plantila organikoan ez izan, ezta azkeneko 5 urtetan, urteroko 500.000 mila euroko gastu korronterik izan, gure Idazkari zerbitzua mantentzen uztea, Iturengo Udalarekin batera daukaguna zehazki.

Bigarrenik eta lehenengo eskaria kontuan izaten ez bada, eskualdea bera emateaz arduratuko den Idazkari zerbitzua, gaur egungo zerbitzuak daukan lurralde eragin eremu (Hau da idazkari bat bi herrientzako bakarrik izatea, Ituren eta Zubietarako hain zuzen ere), kalitate maila (egunero ematetik eta bi herri bakarrik eramaketatik eratortzen dena) eta maiztasuna (egunerokoa) izaten jarraitzea.

Azkenik, horrelako kontu garrantzitsuetan, hurrengoetarako, apirilak 1ean jaso genuen jakinarazpenarekin bezala, Udalei dauden aukera eta arriskuak helaraztea, ofiziala den jakinbidetik eta behar den denborarekin, Udalbatzak beharrezkoak diren eztabaidak egin eta akordioak hartu ahal izateko.”

Idazkia egin ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du, eta **Udalbatzak erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Idazkia Toki Administrazioako Sailera bidaltzea, bertan erakusten den iritzia eta eskaerak kontuan har ditzaten.

2.- Hauteskundeetako mahaikideen zozketa.

Idazkariak zozketa egin ondoren, **Udalbatzak erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Idakariak egindako zozketan izendatuak izan direnei, Zonaldeko Hautespen Juantari eta Bake epaileari zozketaren emaitza jakinaraztea behar diren ondorioetarako.

Eta bertzerik ezean, 14:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.